

PIRIPUINAK

IPUINAK eta

MENDI
ibilbideak



NON DAGO CAMILLE?	10
1 Nire lehen mendi handia, ARLAS	32
2 ZEMETOKO ATAKA Belaguako aterpetxetik.....	34
3 BELABARZEKO UR-JAUZIA Osinondoako zubitik	36
4 GAMUETAKO BASOKO ibilbide zirkularra Linzako babeslekutik	38
5 EZKAURREKO IBOIA, Pirinioetako aintzirarik mendebaldekoena	40
6 ATXERITOKO IBOIA La Minako aparkalekutik	42
7 PLAN IBOIA edo BASA DE LA MORA Saravilloko mendi-bidetik.....	44
LINZO SARRIOA ETA BERE LAGUNAK	46
8 SARRIOEN HARANA eta VIEJO IBOIA	60
9 Paseoa LIZARAKO LAUTADAN zehar	62
10 AÍSAKO mendatea.....	64
11 ESTANES IBOIA Sansanetetik	66
PYRENE ETA IBOIAK	68
12 ANAYET IBOIAK	84
13 PICO PACINO, mendi arteko begiratokia.....	86
14 EL SALTO UR-JAUZIA Sallent de Gállegotik	88
15 ORDICUSO edo Igeletako lakuak.....	90
16 LUMIACHA IBOIA Panticosako bainuetxetik	92

17 Panticosako bainuetxeko ITURRIEN IBILBIDEA.....	94
18 PIEDRAFITA IBOIA, Peña Teleraren oinetan.....	96
TOZALGO SUGANDILA TALDEA	98
19 ARRIPAS, LA CUEVA eta EL ESTRECHO ur-jauziak	112
20 ORDESAKO BELARDIA eta FAJA DE RACÓN.....	114
21 TURIETOKO BASOA eta azken bucardoa	116
22 ORDISOKO TXABOLA San Nicolás de Bujaruelotik	118
23 OTAL IBARRA	120
24 Bujarueloko BIDE ORNITOLOGIKOA	122
25 Brototik SORROSALEKO UR-JAUZIRA	124
26 TELLAKO ERMITEN ibilbidea	126
CARLOTA MARMOTA ETA EDELWEISS LOREA	128
27 PADERNA edo RENCLUSA IBOIA	148
28 FORAU ta PLAN D'AIGUALLUTSeko ordokia.....	150
29 VILLAMUERTA IBOIAK.....	152
30 GORGUTES eta LA SOLANA IBOIAK	154
31 LLOSAS IBOIA.....	156
32 CERLERREKO HIRU UR-JAUZietarako ibilbidea.....	158
33 PICO CERLER, Ampriuko aparkalekutik.....	160

SARRERA

“Natura ez da bisitatzeko lekua. Gure etxea da”

Gary Snyder

Irakurle txiki estimatuak:

Liburu honek bidaia lilugarri batean murgiltzera gonbidatzen zaituzte, mendebaldeko eta erdialdeko Pirinioetako haranetan kokatutako **bost ipuin**en bidez. Istorio hauetako animalia maitekorrei esker, Carlota, Camile, Linzo... funtsezko balioak transmititu nahi dizkiegu, hala nola, gure Pirinioei eta bertako biodibertsitate baliosuari zor dizkiegun ardura, zaintza eta errespetua, jakina, ezartzearen kultura, adiskidetasuna eta, batez ere, naturarekiko maitasuna ahaztu gabe.

Sentsazioz beterik dago liburua: edertasuna, usainak, lilura... Mendiko gau izardunak miresten ikasiko duzue, muino batera igotzeko ahalegina, Pirinioetako animaliak bere habitatean ikusten, iboiei eta basoien darien liluraz gozatzen... Etxean irakurtzen baduzue, ipuin bakoitzean aukera ezin hobea duzue deskribatutako lekuen eta animalien xarma eta edertasuna gozatzeko, batzuk eta besteak ezin hobeki islatu dituzten ilustrazioen bidez.

Baina, horrez gain, **33 ibilbide** ahaztezin biltzen ditu, eta leku horien izaera, kultura eta historia ezagutzeko parada emango dizue, Benasqueko haraneko paisaia dotoretik, Erronkaribarreko edertasun ikaragarriaraino. Oso proposamen anitzak dira distantziari eta zailtasunari dagokienez. Ibilbide bakoitzak datu teknikoen koadroa, deskribapena, mapa lokalizatzailea, ibilbidea nolakoa den labur erakusten duen bideo bat (QR kode baten bidez) eta ibilbidearen track-a jasotzen duen beste QR kode bat biltzen ditu. Txangoaren deskribapenean hitz batzuk kolorez azpimarratu ditugu; zuen jakinmina pizteko bitxikeriak dira. Hitz bakoitzari buruzko informazioa kolore bera duten leihoetan bilatu besterik ez duzue egin behar.

Ibilbideen buruan ikono banak kilometroetako distantzia 📏, desnibel 📈 eta iraupenen 🕒 berri ematen du. Datu orientagarriak dira.

Ibilbideei, track-ei eta mapei dagokienez, liburu hau ahalik eta informazio fidagarriena eskaintzen saiatzen den arren, mendia aldatu

daitekeen ingurunea da, eta batzuetan arriskutsua izan daiteke. Liburu hau tresna bat da, baina ez zure irteerak prestatzeko erabili behar duzuen bakarra. Zuen ardurapean geratuko da informazioa egiaztatzea eta eguneratzea txangoa egin aurretik, eguraldiari buruzko informazioari eta parte hartuko duzuenen egoera fisiko eta prestakuntza teknikoari jaramon egitea. Era berean, jakin ezazue ibilbideetan agertzen diren mapak lokalizatzaileak baino ez direla, eta, beraz, ibilbidea hasi aurretik mapa on bat eskuratzea gomendatzen dugula.

Liburu honen helburua da Pirinioetan zeharreko bidaia hunkigarri batean laguntzea; familian une bereziak partekatzeko aukera ematen digun mendikate magiko honetako isilpeko mirariak ezagutzeko gonbita da, paisaia ahaztezinak bertatik bertara ikusteko eta gure mugak zeintzuk diren egiaztatzeko. Dударik gabe, luzaroko oroitzapenak sortuko ditugu.

Txikitatik bizi izan ditut esperientzia zoragarriak Pirinioetan. “Iboi” hitza entzutean hunkitu egiten naiz, mendi hauetan bizi izandako oroitzapenak ekartzen dizkidalako, labarretan edo mendi-hegal izoztuetan gora igotzen hasi nintzenetik. Ama naizenez gero,

mendiak irakatsitakoa txikienekin partekatzeko beharra sentitu dut.

Ipuin hauetan agertzen diren animaliek bezala, natura maita dezazuela nahi dugu eta, horri esker, hura zaintzen lagun dezazuela. Txoko bakoitza garrantzitsua da, animalia eta landare andanaren etxea da, eta horregatik errespetu osoz hurbildu behar dugu. Adibidez, nahiz eta sargori egon, nahiz eta gogo handiak izan, ez dugu bainatu behar goialdeetako aintzira eta lakuetan. Ekosistema oso delikatuak dira eta kalte konponezinak eragin ditzakegu. Hango hondo lohitsueta anfibio espezie askoren arrautzak dautza, eta sartzean horiek zapaltzeko arriskua dago; eta zer esan gure azalean ditugun eguzki-kremei eta gantzei, eltxoen aurkako intsektizidei edo detergente eta xaboiei buruz? Kutsagarriak dira! Saiatu behar dugu toki berezi horien oreka naturala ez hausten, ahalik eta aratzen gordetzen, eta, horrela, beren kontserbazioan lagunduko dugu. Bertan bizi diren animaliek eta landareek eskertuko digute.

Hori guztia esanda, prest zaudete magia eta sorpresa ugari betetako bidaiari ekiteko? Ba, jantzi ditzagun botak, jarri motxila bizkarrean eta... goazen!



–Lagun maitea, oso triste ikusten zaitut azkenaldi honetan –esan zion hontzak, bere lagun minak.

–Horrela ikusten zaitugu geuk ere!
–baieztatu zuten untxiek–.

–Orain ez duzu gustuko gurekin batera magalean behera itzulipurdika ibiltzea.

–Zer gertatzen zaizu, Camille? –
galdetzen zioten denek kezkatuta.

Baina Camillek ez zeukan erantzunik.

1

Nire lehen mendi handia, ARLAS

4 km 280 m 2 h 05 min

Izabatik NA-137 errepidetik jarraituko dugu mugan dagoen aparkalekuraino.



Ikusiko duzunaren aurrerapen txikia nahi? Hona hemen bideotxo bat.

→ Udaberriko azken asteak (udaberriaren elurtegiak iraun dezakete), uda eta udazkena dira arorik egokienak. Zuhaitzik ez dagoenez, komeni da egunaren erdiko orduak saihestea, batez ere udan.

Mendizaletasuna gustuko dugunontzat Arlas aukera erraza eta polita da. Gailurak ikuspegi panoramiko itzela oparituko digu: hegoalderantz, Erronkaribar eta Larrako karsta; iparralderantz, Baretos haraneko lautadak eta haren inguruan altxatzen diren gailurrak. Beraz, ibilbide honek, malda handirik gabe, Pirinioetako giroan murgilduko gaitu eta, aldi berean, bista ederrak eskainiko dizkigu.

Iparaldeko eta hegoaldeko isurialdeen arteko mugan dagoen aparkaleku zabalean kokatuko gara, Ernazko lepoan, San Martingo Harria adierazten duen panelaren ondoan. Hauxe izango da gure abiapuntua. Goranzko malda txiki batetik emango ditugu lehenengo urratsak eta, ia berehala, Arlas mendiaren okre koloreko piramide perfektua aurrez aurre azalduko zaigu.

Bidezidorra ondo seinalizatuta dago hori koloreko markekin, ez dago galtzerik. Pixka bat jaitsi eta leize baten ondotik igaroko gara. **Eremu karstiko**etan ohikoa da horrelako leizeak topatzea. Gero, larreak zeharkatuko ditugu eta goiko belardi bateraino heltzean, erdialdean, eskuinera doan saihestsi-

dea hartuko dugu eta hegaletik gora igoko gara (15 minutu).

Bidezidor eroso eta malda handirik gabekoa da. Lepora iritsiko gara eta handik, aurrez aurre ikusiko dugu Arlasko tontor dotorea eta, eskuinean, Auñamendi (Ania).

Xendrak Arlas mendiko hegoaldeko aurrerapena zeharkatzen du, magaletik, eta bertan **Contienda izeneko iturria**rekin (45 minutu) topo egingo dugu. Behin mendiaren bestaldean, Pescamou lepora iritsiko gara (1.918 m, 55 min), eta bertatik La Pierre Saint-Martin – Arette eski-estazioaren bista ederrak izango ditugu. Lepo horretan, gailurrera igo-tzeko zehazkizunak dituen mapa ikusiko dugu: ezkerrean joan beharko dugu igoeraren azken



txanpa egiteko. Leku ezin hobea da jarraitu aurretik mokadu bat jateko.

Azken metroetan bidezidorra ez da hain nabarmena; bai, ostera, malkartsuagoa eta harritsuagoa. Beraz, adi ibili eta, behar bada, helduek txikienei lagundu beharko diete. Behin Arlas mendiko gailurrera iritsita (2.044 m, 1 h

15 min), arnasa hartzeko eta paisaia ikusgarriaz gozatzeko tenorea dugu.

Itzultzeko bi aukera ditugu: etorritako bide-tik jotzea edo zuzen jarraitzea, iparralderantz, eski estazioari begira dauden bidexketatik jaisteko. **Kontrabandistak** izeneko teleskiaren instalazioetara hurbiltzean ezkerreko bidea hartu beharko dugu; horrela, igoerako bidearekin bat egingo dugu. Ernaz lepoko aparkalekuraino itzultzea besterik ez zaigu faltako (2 h eta 5 minutu).



Hiru behien zerga

Duela 600 urte baino gehiago, Baretos eta Erronkaribar ibarretako biztanleek ituna adostu zuten bi aldeetako artaldeek larreak eta iturriak partekatzeko. Bake-akordioa urteetako gatazkaren ostean etorri zen, eta, ondorioz, urtean behin mugan bilduko zirela hitzartu zuten. Egun horretan, Baretos ibarreko agintariak hiru behi emango zizkieten Erronkaribarreko ordezkariari. Ordainketa beharrezkoa zen ipar isurialdeko ganaduak belardi horietan bazka zezan.

Ordutik, 262. mugariaren gainean gauzatu da ituna, urtez urte, Ernazko lepoan, San Martingo Harria izenekoan. Gaur egun ere, uztailaren 13an, bi haranetako alkateak elkartzen dira bertan. Eskuak harriaren gainean jarrita dituztela, "Pax avant!" (aurrerantzean bakea!) esaten dute hiru aldiz.

Harri horretan zure hitzarmena sinatu nahi duzu? Oraintxe duzu aukera! Jarri eskuak gainean eta esan: "Pax avant!"

⚡ Alde guztietatik ikusten duzun harri grisa kareharria da. Euria zeharo nagusitzen zaio, harri hori desegiteko eta paisaia karstiko bitxia erakitzeke gauza baita, arrakala, zulo eta kobazulo askorekin. Horietan babes-ten zen, ziur aski, bazkatzera igotzen zen ganadua.

⚡ Bi haranen arteko mugalde hone-tan beti izan dira borroka belardi freskoen jabetza eta erabilera lortzeko. Hortik dator La Contienda (borroka) iturriaren izena. Hemen-dik ez oso urrun, La Contienda ize-neko tontorra ere badago.

⚡ Kontrabandistak herrialde batetik bestera, gauze eta oinez, merkantziak garraiatzen zituzten pertso-nak ziren. Debekatutako produk-tuak lortzeko edo zergak saihesteko egiten zuten (lurrinak, kosmetiko-ak, ganadua, kafea, azukrea, taba-koa, oihalak, zetak...).

5

EZKAURREKO IBOIA, Pirinioetako aintzararik mendebaldekoena

10 km 650 m 3 h 20 min

📍 Zurizatik 5 kilometro behera egingo ditugu Anso herrirako bidean Arau bordara iritsi arte. Ansoetik abiatzen bagara, 9,6 kilometro egin behar ditugu Zurizarantz. Errepide bazterrean aparka dezakegu. Handik hasten da gure pista.



Ikusiko duzunaren aurrerapen txikia nahi? Hona hemen bideotxo bat.

→ Sasoirik onenak udaberriko azken asteak (udaberriari elurtegiak iraun dezakete), uda eta udazkena dira. Zuhaitzik ez dagoenez, udan eguerdiko orduak saihestea komeni da.

Oraingo honetan txango ezin atseginagoa egingo dugu oso jende gutxi dabilen zoko idiliko baten bila. Izen bateko mendiko horma malkartsuen azpian ezkutatuta dago Ezkaurreko iboia. Zuhaitz eta belardi artean ibiliko gara Pirinioetako mendebaldeko lehenengo iboira igotzeko.

Anso ibarreko Arau bordatik abiatuko gara, errepidearen ondotik. Bidearen sarreran norabidea adierazten duen kartela topatuko dugu: “Ezcaurri”.

Ganadua gordetzeko kanadar pasabidea zeharkatu eta autoen zirkulazioa debekatzen duen seinalea aurkituko dugu. Pago, pinu eta hurritz artean igotzen den pistatik joango gara. Kareharrizko labar handiek goitik begiratzen gaituzte, haranaren beste aldetik, eta oso txiki sentiarazten gaituzte. Berehala ikusiko dugu igo nahi dugun lepoa, zelai berde handia deigarria baita arroken artean.

“Ezcaurre” (55 min) dioen kartelarekin topogitean, pista utzi eta eskuinetik desbidera-



tuko gara. Adi egon beharko dugu kartel hori ikusteko, oharkabean pasa baitaiteke. Malda nabarmenagoa da orain, eta gure zidorra, ganaduak sarritan zapal dutako bidea.

Belardira iristean, mugarriei segika jarraituko dugu; aldapa gora ibiliko gara ezkererantz.

Handik, iboira iristeko zeharkatu beharko dugun hurrengo lepoa ikus dezakegu.

Artzain borda zaindu baten ezker albotik (1 h 30 min) igaro eta maldan gora jarraituko dugu leporaino (2 h). Handik, metro gutxi batzuk jaitsi eta Ezkaurreko iboira iritsiko gara (1.730 m, 2 h).

Etorritako bidetik itzuliko gara Arau bordara (3 h 20 min).

Eraztun bila

Pirinioetako iboi guztiak marraztuta dituen mapa begiratu bagenu, Ezkaurrekoa ezkererago dagoena dela konturatu ginatke. Hau da, iboietan mendebaldekoena da.

Pirinioetako beste aintzira askoren inguruan gertatzen den bezala, bada elezaharrik goi-mendiko laku honen inguruan. Horrela, ahoz aho dabilen kontakizunak dioenez, bertatik igaro zen printzesa batek eraztuna galdu zuen iboiko uretan. Ez dakigu zer egiten zuen han, ez zergatik sartu zituen eskuak ur hotzetan, baina haren asmo berberak badituzu, arreta handiz begiratu, ea ur gardenetan zer ikusten duzun. Agian, han, honoan, lokatz eta harri artean, printzesaren urrezko eraztunaren distira ikusiko duzu...

Ez dugu iboietan bainatu behar, ekosistema oso delikatuak baitira, gizakiok eragindako edozerk kalteak ekar ditzake. Hondo lohitsuak anfibio-espezietan askoren arrautzak gordetzen dituzte, eta, zapalduz gero, zapuztu daitezke. Horrez gain, gorputzean dugun eguzki-kremekin, eltxoen aurkako intsektizidarekin edo detergenteekin ura kutsatuko dugu.

Saiatu behar dugu leku horien oreka naturala ez aldatzen, berezko egoeran iraun dezaten, eta horrela haien kontserbazioan lagunduko dugu.

⚡ Kanadar pasabideak, hesiak eta alanbreak bezala, aziendak barrutik irten ez daitezen balio du. Mendiko pistetan edo errepideetan jartzen da. Metalezko egitura da, burdin barrak zoruan parrilla moduan jarrita. Ganadua ezin da haien gainetik ibili. Ibilgailuak eta ibiltariak, berriz, arazo gabe igaro daitezke. Bertatik pasatzen zarenean imajinatu behia zarela eta jakingo duzu zergatik ezin duten zeharkatu.

⚡ Eraikin txiki hauek mendiotara ganadua zaintzera igotzen diren artzainen aterpe dira. Udan haranetako belarra hori eta lehor dagoenean, ardiak eta behiak goi-mendietako belardietara igotzen dira bazkatzera, belarra oraindik berde, fresko eta gustagarri dagoelako. Artzainak hemen nola bizi diren sentitu nahi duzu? Sartu barrura eta imajinatu horietako bat zarela.





Linzo sarrio gaztea zen, atsegina, dibertigarria eta bihotz handikoa. Ibarrean denek maite zuten. Goiz hartan, bera eta bere lagunak ibaitik itzuli eta harkaitz gainean zeuden. Handik Lizarako aterpetxetik astiro igotzen ari ziren bi irudi ikusten zituzten. Felipe zen, mendiko eskiak oinetan jarrita, eta, inguruan korrika, bere txakur Rusco zetorren. Oso gogoko zuen Felipek mendi elurtuetan eskiekin ibiltzea, aire hotza aurpegian sentitzen zuen bitartean. Beti izaten zuen irribarrea bidean ikusten zituen animalientzat. Ruscori, ordez, izugarri gustatzen zitzaion zaunka egitea eta sarrioren atzetik ibiltzea. Baina egun horretan ez zen horrelakorik gertatuko...

–Utzi lasterka eta zaunka egiteari, Rusco, eta gorde indarrak! – esaten zion mendizaleak– Gaurko ibilbidea luzea izango da.

Txakurrarekin hizketan ari zela, burrunba izugarria entzun zen, eta oinpean elurra ikara hasi zitzaion. Elur-jausi izugarria amildu zen ibarreraino eta azkenean gelditu zenean... Felipe erabat elurpean geratu zen! Rusco alde batetik bestera zebilen zaunkaka, hanka sendoekin elurra haztakatzen zuen bitartean, baina ez zuen jabearen arrastorik ere aurkitzen.



SARRIOEN HARANA eta Viejo iboia

10,8 km 620 m 3 h 30 min

A-2605 errepidea hartuko dugu Aragués del Puertoraino eta, gero, hamaika kilometro egingo ditugu errepide estutik Lizarako aterpetxeraino.



Ikusiko duzunaren aurrerapen txikia nahi? Hona hemen bideotxo bat.

→ Joateko garairik onena udaberriko azken asteak, uda eta udazkena dira. Ibilbidea laburtu dezakegu hainbat tokitan:

- Lizarako aterpetxea – Ordelcako aterpetxea
⌚ 1 h joan-etorria ⬆️ 110 m
- Lizarako aterpetxea – Basozainen aterpetxea eta Plana Mistresa. ⌚ 2 h 50 min joan-etorria ⬆️ 444 m

Pirinioetako haranik politenetako bat da, urrutikoa, non sarriok eta marmotek jakin-minez begiratuko diguten. Haraino joateko egin beharreko bidea ere ederra da. Forma bereziko aterpetxetatik igaroko gara, baita **Plana** de Mistresa xarmagarritik edo Viejo iboi ezkutu eta zoragarritik ere. Ibilbidearen distantzia edo desnibela gogorregiak badira guretzat, aukera laburragoak ere baditugu.

Lizarako aterpetxearen ondoko aparkalekuan hasiko dugu ibilbidea (1.540 m). GR-11 bidezidorra hartuko dugu (marra gorri eta zuriak ditu)



eta, aterpearen atzetik, ipar-mendebalderantz igoko dugu. Maldan gora hogeita minutu inguru egindakoan, lehenengo bidegurutzera topatuko dugu; eskuinera egingo dugu eta “Bernera mendatea” jarraibideei men egingo diegu. Orain arteko bide zabala bidezidor bihurtuko zaigu. Aurrera doa eta baso txiki bat zeharkatuko du, altuera handiagoa hartzen duen bitartean. Ordelcako aterpetxera (35 min) helduko gara; bertan egingo dugu lehenengo geldialdia, atsedean hartzeko eta haranaren ikuspegiak gozatzeko.

Igoerari ekingo diogu berriro, harik eta lepo txiki batera iritsi arte. Handik ur-jauzi

polita ikusiko dugu, baita Achar de Cutiellaseraino (1 h) jarraitu beharreko bidezidorraren traza ere. Haitzarte estu horrek Bernera ibaia-oren ondoko eremu lauagora eramango gaitu. Handik, berriro ekingo diogu maldari, etenik gabe Basozainen aterpetxeraino (1 h 40 min). Bertatik bost minututan, Paul de Bernera edo Plana Mistresa izeneko lautadara iritsiko gara. Ur zinez gardenetako erreka sigi-saga isurtzen da bertatik. Lautada ikusgarri hau bi mila metroko altitudetan dago, beraz, **elurtegiak** topa ditzakegu udaberrira arte.

Errekaren beste aldera pasa eta eskuinera joango gara. Aldapa leunean gora jarraituko dugu, GR-11 bidexkaren markekin batera. Bernerako lepora iritsi baino metro batzuk lehenago, eskuinetik desbideratu eta Viejo

iboia (2 h 10 min) gordetzen duen leku ezkutua ikusiko dugu, GRko bidezidorretik ia ikusten ez den aintzira glaziar ederra.

Bernerera mendateraino igotzeko geratzen diren metroak egingo ditugu (2.115 m, 2 h 15 min), eta lepo horretara iristean, ikuspegi liluragarria zabalduko zaigu begien aurrean: Sarrioen harana, labar malkarretako zirku batez inguratutako ibar eskegi xarmanta, Bernera, Oibon, Foya del Bozo eta Liouviella bezalako tontor segailen itzalpean.


Hortxe eman dezakegu amaitutzat gure ibilbidea, ibarraren ikuspegi bikainak lagun. Sarri ikusten dira sarriok taldeak mendi-hegal batetik bestera lasterka doazela. Ibarraren hondora jaitsi nahi badugu, kilometro eta erdi gehiago ibili beharko dugu.

Norabidea zelan asmatu iparrorratzik gabe

Puntu kardinalak bilatzeko hainbat modu dago mendian iparrorratzik gabe gabiltzanean. Behatzaile onak bagara, naturak eskaintzen dizkigun jakingarriak esker gure norabidea zein den asmatuko dugu. Adibidez, gure ibilbidea goizean egiten badugu, eguzkia ekialdetik ateratzen dela kontuan hartu beharko dugu. Hortik aurrera, gainerako puntu kardinalak non dauden jakingo dugu.

Baso baten barruan iparraldea bilatzeko, zuhaitzen goroldioari erreparatuko diogu. Goroldioa enborren zatirik ilun eta hezeenean hazten da, hau da, iparraldera begira dagoen aldean. Izarrak ere lagungarri ditugu: Iparrizar distiratsua beti dago, jakina, iparraldean.

Animaliek ere pistak ematen dizkigute: inurriek, marmotek... hegoaldeari begira atontzen dituzte gordeleketako sarrerak, eguzkitan ordu gehiago emateko.



⚡ Plana, aragoieraz, ordokia da, maldarik gabeko lekua.

⚡ Elurtegiak elurra udaberrira arte edo are udara arte ere gordetzen duten leku ez oso zabalak dira. Elurrak irauten du, leku laiotzak, ospelak izaten direlako.

15 ORDICUSO edo Igeletako lakuak

4,4 km 460 m 3 h

📍 Panticosa herritik, bainuetxera doan A-2606 errepidetik jarraituko dugu.

→ Udaberriko azken asteak (udaberriaren oraindik elurtegiek iraun dezakete), uda eta udazkena dira une egokiak. Zuhaitzik ez dagoenez, eguzkiak indarrez jotzen duen orduak saihestea gomendatzen da.



Ikusiko duzunaren aurrerapen txikia nahi? Hona hemen bideotxo bat.

Ordicuso edo **Igeletako lakuak** (iboia) aukera ezin hobea dira lasaitasunaz gozatu eta Pirinioetako txoko berriak ezagutu nahi baditugu. Panticosako bainuetxearen eta inguruko hiru mila metrotik gorako tontorren (Fenias, Argualas, Algas edo Garmo Negro) bista ezin hobek oparituiko dizkigute. Gainera, ez da jende askorik ibiltzen inguruotan.

Gure ibilbidea Panticosako bainuetxetik hurbil dagoen Baños iboiko ipar ertzean hasiko da, Argualaseko ur-jauziko bideko kartelaren ondoan. Bidezidorra ipar-mendebalderantz igotzen da, beste informazio-ohol batera ino. Bertan egingo dugu lehenengo geldialdia, aurrez-aurre ur-jauzi polita daukagu eta (3 minutu). Argualas amildegia gainera zaldain txikiaren ondoan, beste aldera zeharkatu gabe, xenda bat abiatzen da gure eskuinetik. Horrek, minutu gutxitan, **Fuente de la Laguna** eraikinaren ondora eramango gaitu.

Bidea sigi-saga doa aldapa gogorretik gora, etenik gabe; ibilbideko malda tenteena izango

da. Eskerrak bainuetxearen bista politikak bigaizte izango ditugun!

Basotik irtetea malda leundu egingo da, Beheko **Mallata** (1.860 m, 45 min) izeneko eremu lauagora iritsi arte. Haitz handi batzuetan argibideak ikusiko ditugu margotuta: “Garmo”, eskuinetik, eta “Ordicuso”, ezkerretik. Atsedena hartzeko tenorea izan daiteke, indarberitzeko. Gero, ezkerretik jarraituko dugu, Ordicuserantz, eta Argualas ibaia-
ren haranetik gora egingo dugu. Bidexkak erreka baten ibilgu lehorra zeharkatu du, eta, jarraian, ur gardena daraman beste bat, maldan gora segitzeko.



Argualaseko amildegi polita gaintu eta gero, mendiaren ezker aldetik joango gara. Ez dago galtzerik. Bide malkarrak esfortzu itzela eskatuko digu, arnasestuka igotzen garen bitartean.

Xendaren azken zatia magal belartsu bate-tik gora doa, Ordicuso lakuetaraino (2.178 m, 1 h 45 min). Ikuspegi bikainek gure ahalegina sarituko dute.

Bide beretik jaitsiko gara.

La Laguna iturria

Ikusi duzu inoiz ur epeleko iturririk? La Laguna iturritik isurtzen den uraren temperatura 22ºkoa da. Erromatarren aroan, dagoeneko horrelako iturrietako ura erabiltzen zuten, bazekitelako osasungarria zela. Hemen ere izan ziren, gaur egun Panticosako bainuetxearen eraikina dagoen tokian bertan alegia, Tiberio enperadore erromatarren garaiko txanponak aurkitu baitituzte ur bero hauetako putzuetan.

Adituek diotenez, La Laguna iturriko ura ona da digestio-aparaturako, kaltzio asko daukalako.



⚡ Iboien izenak askotarikoak dira eta formari, koloreari, elezaharrei edo animaliei erreparatzen diete, kasu honetan bezala (igelak). Bada-kizu zergatik deitzen diote horrela, ezta?

⚡ Ez ahaztu eraikin honetan sartzea eta iturriko ura ukitzea. Mendietako iturburuetako ura oso hotza izaten da, baina hau... zerbait arraro igeri duzu?

⚡ Aragoieraz, mallata hitzaren itzulpena (gutxi gorabehera) “sarioi” da. Mendiko goialdeetan, udako larre fresko eta mamitsuetan dabiltzan abereentzako kortak eta artzaintzako aterpeak dira.